

**ARABAKO HAUR ETA GAZTEEN PSIKIATRIAKO UNITATE (HPU)
BERRIAREN INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN DE LA NUEVA UNIDAD
DE PSIQUIATRÍA INFANTO-JUVENIL (UPI) DE ÁLAVA**

2018-12-03 Vitoria-Gasteiz 03-12-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, sailburuorde, Osakidetzaren zuzendari orokorra, Osasun Saila eta Osakidetzaren arduradunok, eta baita bertoko Ospitaleko arduradunok, jaun andreok, egun on.

Gaur Arabako Osasun Mentaleko Sarearen Haur gazte-nerabe Psikiatriaren Unitatearen Zentroa irekitzen dugu.

Inbertsio berri bat gizartearen eskari eta premiei gero eta hobeto erantzuteko. Hau da osasun arloko arduradun eta profesional guztien helburua: **pertsonen osasuna zaintzea eta hobetzen laguntzea.**

Eusko Jaurlaritzak osasun sistema publikoaren alde egiten jarraituko du. Apustu horren adibide argia dugu datorren urtean aurrekontu osoaren herena osasun arlora bideratuko dugula. Horrela, bada, osasun-gastu publikoa pertsona bakoitzeko 1.730 eurokoa izango da. Hau da, zalantzarik gabe, euskal gizarte osoaren lehentasun bat.

La apertura de esta nueva Unidad de Psiquiatría Infanto-juvenil de la Red de Salud Mental de Araba es ejemplo de nuestra apuesta por un **sistema de salud público, de calidad y universal.**

Hemos invertido 320 mil euros, se triplica el espacio, se mejora la intimidad y el confort y vamos a mejorar la atención que cada año se presta a 1.800 pacientes. Además, esta inversión va a permitir poner en marcha un nuevo servicio como es el Hospital de Día Infanto-juvenil de Araba.

Haur nerabe-gazte Psikiatriaren Unitatean zentro honen bidez, Santiagoko zentroan ematen den arreta hobetu ahalko da; urtero, 1.800 pazienteri ematen zaie arreta bertan.

Zentro berri honetan 320 mila euro inbertitu ditugu eta egoitza honek ia hirukoiztu egiten du lehengo instalazioaren espazioa.

Horren bidez, Arabako Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea jarriko da martxan. Horrela, bide emango da pazienteak bere inguruetik banandu behar ez izatea eta, aldi berean, baliabide terapeutiko guztiak bere esku jartzea.

La estrategia del Departamento de Salud y de Osakidetza, en línea con las recomendaciones del Ararteko, va encaminada a dar prioridad a la atención de niñas, niños y adolescentes. También a la **detección temprana de la enfermedad mental**, con objeto de disponer de un diagnóstico preciso y precoz, factor clave para paliar la cronicidad de dicha patología y sus secuelas.

La Unidad de Psiquiatría Infanto-Juvenil es un referente en la atención asistencial gracias al capital humano de este servicio. Hoy compartimos un recuerdo, así lo quiero hacer, y un reconocimiento profesional a la doctora Isabel Orbe, fallecida de forma prematura, quien nos dejó como legado esta **Unidad de Psiquiatría Infanto-juvenil**.

Conocemos los retos a los que debemos dar respuesta: sostenibilidad del sistema, cambios sociales, envejecimiento de la población, nuevos modelos familiares, prevención y respuesta a las patologías emergentes, lucha contra el estigma de la enfermedad mental. Son cuestiones que nos ocuparán estos próximos años y estoy seguro de que contaremos con la misma **colaboración y dedicación profesional vocacional** demostrada hasta la fecha.

La vocación de servicio, la planificación adecuada y la orientación de todo el esfuerzo a mejorar la salud y el bienestar de las personas han permitido a Osakidetza crecer y ganar la confianza de la sociedad vasca. **Este es el bien común que nos corresponde preservar y mejorar.**

Aurten Osakidetzaren 35garren urteurrena ospatu dugu eta etorkizunari ilusioz begiratzen diogu. Badakigu zer erronka dugun aurrez aurre, baita osasun mentalaren arloan ere. Ziur nago egun arte profesionalak erakutsi duzuen konpromiso bera izango dugula aurrerantzean ere.

Beraz, gaurko honetan eskerrik asko zuen zerbitzuagatik, zuen profesionaltasunagatik, zuen bokazioagatik eta zorionak gaurko Unitate hau irekitzerakoan. Urte askotarako izan dadila.